Prozedura:	P1- Previo de necesidades
Esp.zk.:	2025/119
Interesduna:	
Ordezkaria:	
Lekua:	
Gaia:	Mungiako ikastetxeetan bertsolaritza-eskolak emateko zerbitzua kontratatzea (2026-2030).

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUNGIAKO IKASTETXEETAN BERTSOLARITZA-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA –PROZEDURA IREKI BIDEZKOA– ARAUTUKO DUENA

1.- Kontratuaren xedea

Mungiako ikastetxeetako ikasleen artean bertsolaritza sustatzeko programak kudeatzea, antolatzea eta eskaintzea.

2. Ezaugarri teknikoak

Mungiako ikasleen artean euskararen ahozko erabilera hobetzea eta aberastea da programa honen xede orokorra. Bertsolaritza oso tresna ona da helburu hori lortzeko, batetik, hitza bera ardatz hartuta, hizkuntzan trebatzea dakarrelako, eta bestetik, hizkuntzari dimentsio ludikoa ematen diolako. Hau da, ikasleen artean euskararen erabilera eta gaitasuna hobetzeko gauzatzen da ekimen hau urtero-urtero LH6ko ikasleen artean.

Eskola eremu arautua da eta bere jardunaren zati handi bat hizkuntza idatziari lotua egoten da. Beraz, ikasleek euskara euren egunerokoan normaltasunez erabil dezaten ezinbestekoa da hizkuntza bizia ikastea eta modu atseginean lantzea. Ekimen honek horrexetarako aukera eskaintzen die ikasleei.

Ohiko bide formaletatik kanpo, ahozko generoari lotutako atsotitzak, kantuak, koplak eta antzeko baliabideak erabiliko dira hizkuntza lantzeko tresna moduan. Baina formaz gain, bertsolaritzak eguneroko bizitzako gai ezberdinen inguruan hausnarketa egiteko aukera ere eskaintzen die ikasleei, eta alde horretatik, ezinbestekotzat jotzen da ekimen honek ere balio hezitzailea izatea.

Hori dela eta, proiektuak bere helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea eskatzen du; harreman berdinzaleak sustatzeko, kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitatea edota sexu-orientazioagatiko diskriminazioak gaitzestea sustatuko du. (ikusi 8. Puntua)

3.- Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena urte bikoa izango da, 2026ko irailetik gora. Alde biek, hala erabakiz gero, beste urte bi luzatu ahal izango da.

4.- Kontratatu nahi den zerbitzuaren zereginak eta atazak

Hauek dira zereginak:

a) <u>Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei bertso-eskolak ematea</u>

Urritik maiatzera, biak barne, eta astelehenetik ostiralera bitartean izango dira, eskola-orduetan, eta ikastetxe bakoitzak duen eskola-ordutegiari egokituta.

Taldeen banaketa, egutegia eta ordutegia ikastetxe bakoitzarekin adostuko dira, betiere Mungiako Udaleko Euskera Sailaren oniritziarekin.

Ikastalde/gela bakoitzak ordubeteko klasea jasoko du hamabostean behin.

Ondoko talde kopuruak aurreikusten dira ikastetxeen arabera:

IKASTETXEA	TALDEAK

Bentades ikastetxea	2
Larramendi ikastola	3 (2026-2027), 4 (2027-2028); 3 (2028-2029), 4 (2029-2030)
Laukariz herri ikastetxea	1
Legarda herri ikastetxea	4 (2026-2027), 3 (2027-2028); 3 (2028-2029), 4 (2029-2030)

Horrenbestez, 9 taldetan eman beharko ditu eskolak enpresa adjudikaziodunak; astean 4,5 ordu hain zuzen ere.

b) Bertso-topaketa antolatzea eta eskaintzea

Ikasturtean zehar egindako lana erakusteko eskolarteko topaketa bat antolatuko da ikasturte amaieran.

Ekitaldia antolatzeak izango dituen gastu guztiak aurreikusi beharko ditu adjudikaziodunak: koordinazioa, aurkezpena, gidoia, dinamizazioa, garraioa, etab. Ekitaldi horretarako, herriko bertso eskolako kideen lankidetza lortu beharko du enpresak.

5.- Zerbitzuaren zereginak betetzeko gauzatu behar diren lanak

Gauzatu beharreko lanek proposamen guztietan agertu beharko dute zehaztuta:

a) Bertso-eskolak programatzea eta kudeatzea

Urteko egitaraua egin eta abian jarriko da, Mungiako Udaleko Euskera Sailarekin eta ikastetxeekin bat etorriz. Egitarauak bertso-eskolek bete beharreko helburuak eta programazioa jasoko ditu. Klaseen jarraipena eta ebaluazioa ere egin beharko da, eta baita asistentziaren eta klaseen kalitatearen kontrola ere.

b) Koordinazio lanak

Enpresak Euskera Sailarekin koordinatu beharko du zerbitzuaren garapenarekin zerikusia duen oro. Ikastetxeetako arduradunekin ere koordinatuko da.

Garatutako prozesuari buruz informazioa eman beharko zaio Mungiako Udalari, informazio osoa, zuzena eta zehatza hain zuzen ereu. Horregatik, aldian-aldian, koordinazio-bilerak burutuko dira Euskera Sailarekin, eta egindako lanaren balorazioa egingo da batzarrotan. Horretarako, adjudikatzaileak solaskide bat izendatu beharko du.

c) Balorazioa

Era berean, ikasturtearen amaieran (ekaina), garatutako jardueraren balorazio zehatza aurkeztuko da, taldez talde, paperean eta formatu digitalean.

Balorazioetan datu guztiak sexuaren arabera bananduta erantsiko dira.
Txosten horretan parte hartu duten ikasleen balorazioak, hala nola irakasleenak ere jaso beharko dira.

7.- Zeharkako lerroak

Zeharkako lerroak dira kontratatutako zerbitzuak garatutako eta sustatutako jarduera guzti-guztietan egon behar duten lan-ildoak, honako hauek:

a) Euskara. Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek eskatzen dute kontratu hau ezinbestean euskaraz gauzatzea.

Hori dela eta, aurreikusitako jarduera guztiak erabat euskaraz garatuko dira. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: irakasleak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana, eta abar.

Egiaztapen-kode segurua: 15703250712770512127
Código Seguro Verificación:
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion
Mungin geure ikurrek

Era berean, kontratuaren xede diren idatzizko agiriak, memoriak, zirkular informatiboak, gutunak edota beste era bateko lanak, eta Udalean entregatu behar direnak, familiei emango zaizkiena eta jendaurrean jarri behar direnak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira, euskarari bai itxuraz bai kokapenaren arabera lehentasuna emango zaiolarik.

Erabiltzaile eta talde bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak inplementatuko dira talde bakoitzean euskararen aldeko jarrerak eta erabilera bultzatzeko.

b) Berdintasuna. Programan emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasunean bermatzeko bitartekoak jarriko dira: debateetan eta erabakiak hartu behar direnean emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero irizpidea kontuan hartuko da ekintzak antolatzeko orduan, materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan...

Entitate adjudikaziodunak lengoaia ez-sexista erabili beharko du eta dokumentazio eta material guztietatik kenduko dira emakumeen irudi diskriminatzaile guztiak.

Era berean, berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuneko baloreak zabaltzen dituen irudia sustatuko da.

c) Inklusioa. Gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zainduko da.

Ikuspuntu integratzaile batetik lan egitea baztertuak izateko arriskua azaleratzen duten adierazleak agertzen dituzten pertsonen premia eta eskaerak bereziki kontuan hartzea da (ezgaitasunen bat duten pertsonak, gizarte abileziarik eza, kanpo jatorriko pertsonak, etab.).

8.- Zerbitzuari lotutako langileek bete beharreko baldintzak

1.- Kontratua gauzatuko duten langileek marka bat eraman beharko dute Mungiako Udaleko funtzionario eta lan-kontratupeko langileetatik bereizteko.

2.- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2025eko Legearen 13.5 artikuluak ezartzen duena bete beharko da: “Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan, ofizioetan eta jardueretan sartzeko eta horietan aritzeko, eskakizuna izango da sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik –sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa sartzen dira delitu horietan– sententzia irmoaren bidez zigorrik jaso izana ez izatea. Horretarako, lanbide, ofizio edo jarduera horietara jo nahi duenak egoera hori egiaztatu beharko du eta, horretarako, sexu-delinkuenteen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu”. Beraz, entitate kontratatzaileak lantaldea osatuko duten pertsona guztien (banangoa) Sexu Delitugileen Erregistro Zentraleko ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko du; horren ordez, Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Zentralak emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

Adjudikaziodun enpresak kontratuaren egikaritze fasean parte hartuko duten pertsona guztien aurrekari penalen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu kontratua adjudikatu aurretik.

3.- Datuen Babeserako Legeak ezartzen duena betetzeko, gai horren gaineko irizpideak ezarriko dituen kontratu bat sinatuko da enpresa adjudikaziodunarekin.

Euskera Saileko Burua
Honako honek modu elektronikoan sinatua
Iraide Iturri Urrutia
03/10/2025.13:23:50

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 15703250712770512127
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion